

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKUALDEAK IZENDATZEAZ

Euskaltzaindiak, bere garaian, dagokion batzorde akademikoaren irizpe-  
nez, Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeen izenak igorri zituen Eusko  
Jaurlaritzara.

Besterik da, Administrazio desberdinek, foru, udal eta mankomunitateek  
eskualde izen horiek erabiltzea, edota, Jaurlaritzak berak, Sail bakoitzaren es-  
kualde eremuak, beti bat ez etortzea. Hau gertatu omen da, dirudienez, Lu-  
rralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Lurralde Planetarako onartze bide-  
an dituen eskualdeekin, hala nola, **Araba Erdialdearekin**. Bistan da, kasu  
honetan, lurralde horretako eskualde bat baino gehiago hartzen dituela.

Baina berehala dekretu bidez, lurralde horren **Erdialdeaz** gain, beste  
biak, eskualde eremu jakin batekin ados daudenak onartzen baditu Gobernu  
bilkurak, ofizialtasuna emanaz, onuragarri eta ezinbestekotzat jotzen dugu,  
izen zuzenaz bataiatzea alor guztietarako. Beraz, Euskaltzaindiak igorri legez,  
**Arabako Errioxa** agertu beharko luke eta ez okerreko *Arabar Errioxa*. Gau-  
za bera **Aiara / Ayala** eta ez *Kantauri Arabarra* bezalako aldrebeskeria bat.

Gipuzkoan eskualdeko mankomunitateak eskatuta, hain zuzen, euskal  
mendebaldeko tradizio toponomastikari so eginda, **Debabarrena** hobetsi zen,  
batzuk erabiltzen hasiak ziren *Deba Beherea* izenaren ordeaz. Arrazoi berbe-  
rengatik **Debagoiena** eta ez *Deba Garaia*. Komeni da, beraz, udal, foru eta  
autonomia administrazioek zein komunikabideek hedatzen diharduten izen bioi  
ere dekretuarekiko ofizialtasuna aitortzea.

**Goierri** eta **Tolosaldea** izenek ez dute bat ere arazorik sortzen, oraindik,  
inoiz, *Goierri* ortografia okerra ere ikusi arren. **Urola Kosta** izena honela go-  
mendatzen da, bigarren parteak «Kostalde»rik ez duelarik behar.

**Donostialdea** gaizki asmatua dela ezin da esan, nahiz eta batzorde aka-  
demikoak, **Donostia-Beterri** proposatu. Esan beharra dago gipuzkeraz mintzo  
diren euskaldun zahar askok, **Beterri** eskualde izena erabiltzen dutela eta gor-  
detzeko gogoia erakutsi dutela. Onuragarria litzateke autonomia, udal eta foru  
administrazioek izen berberari hedadura ematea elkarren harremanez eta era-  
kunde akademikoari entzunda.

Bizkaian, *Gernika-Markina*, *Durango* eta *Igorre* eskualde izentzat har-  
tzea, zentralismoaren usadioari so egitea litzateke, alegia, probintzia edo es-

kualde batek hiriburuaren izenari. Nekez uler daiteke, irizpide teknokratikoa hedatzea nahi ez bada behintzat, arratiar batek orain biztanlerik gehien duen herriaren izenaz bere mendez mendetako eskualde izena arbuiatzea. **Arratia** litzateke, beraz, dekretuz ofizialtzeko eskualde izena. **Durungaldea** euskaraz eta gaztelaniaz, izen biak onartzekotan, **Durangesado** eta ez *Durango*, hiriburutasunean eztabaidarik ez badago ere. Gernika hiriburu duen eskualdeak badu izen historiko bat Busturiako merindadea edo aspalditik hedatua den **Busturialdea**. Markinako epai barruti ohiaren eskualdeak hedatu du jadanik **Lea-Artibai** izena.

*Onomastika batzordeak, Donostian, 2004.eko urtarrilaren 15ean onartua*